

Ingurugiroa6

JAIZKIBELGO SUTEAK



Azken urteotan ohikoa bihurtu da Jaizkibel urtean bizpahiru aldiz sutan ikustea. Ordu batzutako suteak izaten dira; kalteak, ordea, urtetakoak. Alegia, hainbat urtetako zuhaitzak erretzen dira.

Azken sutea aurtengo otsailaren 20an izan da. Sute hau ere propio eragindakoa izan da, eta eraso berri honetan 500 hektarea mendi erre dira (Jaizkibel osoak bi mila hektarea ditu). Erretako hektarea horietatik 80 inguru basoa zen. Erdia, orain sei-zazpi urte birlandatutakoa (pinua, gaztaina, urkia ...) eta beste erdia, 20-30 urteko zuhaitz sendoak, 88ko eta 89ko sute haundietan salbatu zirenak.

Oraingoan ere ez dago zalantzarik: mendiari su eman diote. Lau tokitan piztu dute sua; lehenengoa, goizaldeko hirurak aldera Gaintxurizketa parean, eta beste hirurak, goizeko zazpiak aldera kostaldean. Benetako sarraski ekologikoa. Foru Aldundiko mendi arduradunek esan dutenez, hainbat tokitan 50 urte beharko dira erretako zuhaitzen modukoak ikusi ahal izateko.

Hona hemen Jaizkibelek azken urteotan pairatu behar izan dituen erasoak. Foru Aldundiak emandako datuak dira.

URTEA	ZENBAT SUTE	ERRETAKO HEKTAREA ZUHAIZTUNAK	ERRETAKO HEKTAREA ZUHAIZGABEAK	ERRETAKO HEKTAREAK DENERA
1973	6	34	10,6	44,6
1976	3	9,5	2,5	12
1977	5	53,4	274	327,4
1978	7	9	11,2	20,2
1979	3	2	7,2	9,2
1980	2	20	7	27
1983	11	15,3	54	69,3
1984	14	78	384,3	462,3
1985	11	5,3	27,45	32,75
1986	4	1,75	41,75	43,5
1987	4	1,2	69,3	70,5
1988	6	6,4	4	10,4
1989	6	1.343,71	2,9	1.346,61
1990	2	34	36	70
1991	2	3	3	6
1992	3	7	21	28
1993	5	60	46,5	106,5
1996	2	0	1,1	1,1
1997	5	29,9	113,7	143,6

Datuak berez dira adirazgarriak. Nola nahi ere, zera ikus daiteke: azken 25 urteetan 1½ sute izan direla Jaizkibelen. Urte horietan ia-ia urtero izan da suteren bat. Eta 25 urte horietan Jaizkibel terdi erre da: 3331 hektarea; erdia baino gehiago zuhaiztia.

Zenbakiak zenbaitetan hotzegiak izaten dira eta ez dute behar bezala azaltzen erre-
litatearen islada. Beste era batera esanda, azken 25 urteotan Jaizkibelen, Lezo osoa-
ren azalera ia lau aldiz erre da; lau Lezo oso erre dituzte.

Noiz arte horrela?

JOXE JUAN UGALDE ORDOKI
Argazkia: I. Pikabea